



## **Luis GARDE**

*Oihan nabarra*, BBK-Euskaltzaindia, 2003

*Haize hegoaren aroak*, Pamiela, 2007

*Gertakarien urtzea*, Alberdania, 2008

*Unplugged*, Kutxa Fundazioa, 2009

Luis GARDE\*

**D** desde tu condición de escritor *euskaldun* nacido y/o residente en Navarra, ¿cómo ves el panorama literario navarro en general y el *euskaldun* en particular? Háblanos de ello.

—Contamos en Navarra con algún que otro escritor *euskaldun* de gran nivel, nacidos en las décadas de los cincuenta y sesenta, que empezaron a escribir y publicar hace tiempo, y que hoy siguen en plena forma. En los últimos años, sin embargo, pocos nombres más se le pueden sumar a esa lista. Casi no aparecen nuevos escritores *euskaldunes* que publiquen de modo continuado. La cuestión no es ser optimista o pesimista, pero no veo “relevos”. Por qué será esto así no lo sé, a decir verdad. Es evidente que el número de jóvenes *euskaldunes* va en aumento año a año, pero esa realidad no se ve reflejada en el campo de la literatura, ni en lo que se refiere al consumo ni a la producción. Quizá cada vez sea más complicado impulsar el gusto por la lectura entre los jóvenes, tanto en *euskara* como en castellano: la competencia de internet y de los audiovisuales, la enseñanza dirigida a los estudios técnicos...

La literatura en castellano que se realiza aquí no la conozco en profundidad; tenemos, yo creo que sin ningún género de dudas, tres escritores magistrales: Pablo Antoñana en novela y narrativa, Miguel Sánchez-Ostiz en novela y poesía, y Fernando Luis Chivite también en esos dos géneros. Aunque uniendo esto a lo que he comentado un poco más arriba, estos escritores no es que sean precisamente jovencitos.

162

**—¿Qué relación tienes con los escritores navarros *euskaldunes* (o *euskaldunes* navarros)?, ¿en qué se materializan estos vínculos?, ¿estáis asociados o contempláis esa vía, u otras más informales?**

—La organización “oficial” que tenemos los escritores *euskaldunes* es la EIE, esto es, la Euskal Idazleen Elkartea (Asociación de Escritores en Lengua Vasca). No participo en las reuniones ni en el funcionamiento interno de esta asociación, ya que los aspectos burocráticos no me atraen en absoluto. La consulta del sitio web de esta organización ([idazleak.org](http://idazleak.org)) puede resultar de utilidad para cualquier lector. Yo prefiero las relaciones personales, informales: mejor las relaciones directas, una comida o una cena que no las reuniones y los “rollos” profesionales. El hecho de vivir en un pueblecito que está lejos de las ciudades me condiciona; en la mayoría de las ocasiones la relación se limita a actos puntuales. Y estos últimos no son muy habituales, menos aún en Navarra.

**—¿Por qué instituciones os sentís respaldados? ¿Por cuáles no?**

—Siendo sincero, yo no siento ningún apoyo de ninguna institución, ni por parte de las instituciones oficiales, ni por la de las no oficiales. Mucho menos en Navarra, por descontado, conociendo el proceder lamentable que muestra nuestra Administración para todo aquello

---

\* Traducción realizada por Pablo Azpiroz Iribas. Biblioteca Pública de Pamplona-San Jorge

Luis GARDE

**N**afarroan jaioa edota bizi zarela eta idazle euskalduna zaren aldetik, nola ikusten duzu egoera literarioa Nafarroan, bereziki euskarazkoa? Hitz egiguzu honetaz.

—Baditugu Nafarroan maila handiko idazle euskaldun banaka batzuk, 50eko eta 60ko hamarkadetan jaioak, aspaldian idazten eta argitaratzen hasi zirenak, eta egun sasoi betean jarraitzen dutenak. Azken urteotan, hala ere, izen berri gutxi gehitzen ahal zaio zerrenda horri. Ez dira kasik agertzen era jarraitu batean argitaratzen duten idazle euskaldun berriak. Kontua ez da baikorra edo ezkorra izatea, baina ez dut ikusten "erreleburik". Zergatik ote den horrela nik ez dakit, egia erran. Argi dago gazte euskaldunen kopurua urtez urte gora doala, baina errealitate hori ez da islatzen literaturaren arloan, ez kontsumoari ez ekoizpenari dagokienez. Agian gero eta zailagoa da irakurzaletasuna sustatzea gazteen artean, bai euskaraz bai erdaraz: interneten eta ikusentzunezkoen lehiaketa-konpetentzia, ikasketa teknikoenganazko buruturiko irakaskuntza...

Hemen egiten den eradarazko literatura ez dut sakon ezagutzen; baditugu nire ustez eztaba- daidarik gabe bikainak diren hiru idazle: Pablo Antoñana zena nobelan eta narrazioan, Miguel Sánchez-Ostiz nobelan eta poesian, eta Fernando Luis Chivite ere bi genero horietan. Nahiz eta arestian aipatu dudanarekin lotuz, idazle hauek ez dira gazte-gazteak.

163

**—Zer-nolako harremanak dituzu idazle nafar euskaldunekin (edo euskaldun nafarrek)?, zertan hezuramitzen dira lotura horiek?, elkarerik ba al duzue eratu edo eratzekobidean, ala bide informalagoak nahiago?**

—Idazle euskaldunok dugun erakunde "ofiziala" EIEa da, Euskadun Idazleen Erakundea alegia. Organizazio honen bileretan edota haren barne funtzionamenduan ez dut parte hartzen, kontu burokratikoek ez binaute deus ere erakartzen. Erakunde honen web orria (idazleak.org) kontsultarako erabilgarri izan daiteke edozein irakurlerentzat. Nik harreman pertsonalak, informalak nahiago ditut: hobe harreman zuzenak, bazkari edo afari bat bilerak eta kontu profesionalak baino. Hirietatik urrun dagoen herrixka batean bizitzeak baldintzatzen nau; gehienetan harremana unean-uneko ekitaldietarat murrizten da. Eta azken hauek ez dira oso ohi-koak, are gutxiago Nafarroan.

**—Zein erakunderen babesa sentitzen duzue? Zeinena ez?**

—Egia erran, nik ez dut sentitzen inongo erakunderen babesa, dela erakunde ofizialen partetik, dela erakunde ez ofizialen aldetik. Are gutxiago Nafarroan, noski, jakinda gure Administrazioaren jokaera tamalgarria kulturarekin zerikusirik duen edozerekin; ez bakarrik euskal kulturari dagokionez, baizik eta orokorrean edozein kultur agerpenarekin. Dena den, ez naiz biktimismokerien aldekoa. Nire ustez aginte publikoei literaturzaletasuna sustatzea dagokie, hala hezkuntza sisteman, haur eta gazteen artean, nola orokorrean hiritarren artean; inolaz ere idazleen babesa zuzena. Edonola ere nik preziatzen ditudan idazleak "euritakorik

que tiene que ver con la cultura; no solo en lo que respecta a la cultura vasca, sino en general con cualquier manifestación cultural. De cualquier manera, no soy partidario del victimismo. A mi parecer les corresponde a los poderes públicos el impulsar el gusto por la literatura, tanto en el sistema educativo, entre los niños y jóvenes, como en general entre la ciudadanía; en ningún caso la protección directa de los escritores. De todos modos, los escritores que yo más valoro son los que saben andar “sin paraguas”, alejados de los poderes fácticos de la sociedad; porque creo que hay que escribir desde la mínima dependencia posible. El escritor debe ser crítico bien con los poderes oficiales, bien con los valores instalados en la sociedad.

Tengo la impresión de que los escritores de hoy día, en general, se están amoldando cada vez más a los valores impuestos; que cada vez se persigue con más ahínco dar una imagen agradable y aceptable; que los objetivos de lograr ventas copiosas y de ser famosos se están propagando más de lo deseable.

**—Cuando se organiza un congreso, o se hace una antología de escritores navarros y buscáis en el índice y no estáis, ¿creéis que ese olvido es político, sociológico o cultural?**

—Los porqués de esos “olvidos” pueden ser muy variados. En primer lugar, como bien citáis, hay razones políticas. A veces (o la mayoría de ellas) esas antologías las publican y pagan las administraciones, bien directamente o bien indirectamente; por lo tanto, lo normal es que los expertos que las completan se adecuen a los criterios de quienes las pagan. Esto también ilustra lo que antes apuntaba sobre la cultura subvencionada. Quien tiene el poder de publicar la revista o el boletín oficial, también tiene el poder de enseñarnos a los ciudadanos qué, cómo y quiénes somos.

164

También hay que reconocer que razones sociales y culturales “haberlas, haylas”; para explicar esto debemos reparar de nuevo en el problema sobre el que estamos advirtiendo una y otra vez: la “invisibilidad” de la cultura vasca que perdura entre nosotros. Todavía para una mayoría de ciudadanos la literatura en castellano es la cultura “normal”, la que está accesible, la que se puede producir y consumir de modo natural en el día a día; y la literatura en euskara aunque se vea con buenos ojos, se estima exótica, difícil, lejana... incluso por parte de muchos *euskaldunes*. Considerando que los vascohablantes somos una minoría, deberíamos buscar más vías, para que la mayoría no *euskaldun* conozca lo que se está escribiendo en *euskara*.

**—¿Quiénes son de la literatura *euskaldun* de estas latitudes los padres fundadores?, ¿y quiénes el presente y el próximo futuro?**

—Los padres... supongo que la pregunta se refiere a los precursores clásicos, los primeros escritores que cultivaron nuestro idioma. En el campo de la poesía, hay que esperar al siglo xx, en mi opinión, para encontrar poesías que hoy se califiquen de “leíbles”, tanto navarras como *euskaldunas* en general.

No obstante, y no sé si lo que voy a decir no será políticamente incorrecto, no soy nada amante de la tradición. Una cosa son la filología o la historia de la literatura, tomadas como disciplinas para la investigación y el estudio, respetabilísimas, y otra la creación literaria. Lo que

gabe" ibiltzen dakitenak dira, gizartearen botere faktikoetatik urrun; uste baitut ahalik eta dependentzia gutxienetik idatzi behar dela. Idazlea kritikoa izan behar da bai aginte ofizialekin bai bere gizartean ezarritako baloreekin.

Susmoa dut gaurko idazleak, orokorrean, gero eta gehiago egokitzen ari direla ezarritako baloreei; gero eta gogo handiagoz bilatzen dela irudi atsegin eta onargarri bat ematea; ezaguna izatearen eta salmenta ugaria edukitzearen helburuak behar baino gehiago zabaltzen ari direla.

**—Biltzar bat antolatzen denean, edo idazle nafarren antologia bat osatzen dutenean eta aurkibidea arakatu orduko jabetzen zaretenean bertan ez zaudetela, zure ustezpolitikoa, soziologikoa ala kulturala da ahanztura hori?**

—"Ahazmen" horien zergatiak anitz izan daitezke. Lehenik eta behin, aipatzen duzun bezala, arrazoi politikoak daude. Batzuetan (edo gehienetan) antologia horiek administrazioek argitaratzen eta ordaintzen dituzte, dela modu zuzenean dela zeharkakakoan; beraz prestatzen dituzten adituek ordaintzen dituenen kriterioei egokitzea normalena da. Honek ere ilustratzen du arestian kultura subentzionatuari buruz erran dudana. Aldizkari edo boletin ofiziala argitaratzeko boterea duen horrek, badu ere hiritarroi zer, nola eta nor garen erakusteko ahalmena.

Aitortu behar da arrazoi sozialak edo kulturalak ere izan badirela; hau azaltzeko berriz jo behar dugu etenik gabe ohartarazten ari garen arazora: gure artean oraindik nagusitzen den euskal kulturaren "ikusezintasuna". Oraindik biztanleen gehiengo batentzat erdal literatura kultura "normala" da, eskura dagoena da, eguneroko bizimodu arruntean ekoizten eta kontsumitzen daitekeena; eta euskal literatura nahiz eta begi onez ikusi, exotikoa ikusten da, zaila, urruna... baita euskaldun askoren partetik ere. Euskaldunak gutxiengo bat garela kontuan hartuta, zabalbide gehiago bilatu beharko genituzke, gehiengo erdaldunak euskaraz idazten ari dena ezagut dezan.

165

**—Zeintzuk dira lurralde honetako euskarazko literaturaren gurasoak?, eta nortzuk oraina eta etorkizun hurbila?**

—Gurasoak... Atzindari klasikoez-edo ari zarela suposatzen dut, gure hizkuntza jorratu zuten lehenengo idazleez. Poesiaren arloan, hogeigarren mendera arte espero behar da, nire ustez, gaur "irakurgarri" diren olerkariak aurkitzeko, bai nafarrak bai euskaldunak orokorrean.

Dena den, eta ez dakit erran behar dudana politikoki ez-zuzena ote den, ez naiz batere tradiziozalea. Kontu bat dira filologia edota literaturaren historia, ikasteko eta ikertzeko disziplina moduan hartuak, guztiz errespetagarriak, eta bertze bat literatur sorkuntza. Nire sentimendua zera da, euskal literaturan kasik dena egiteke eta egiteko dagoela; horren ondorioz orainari eta etorkizunari begira idatzi beharko dugu, atentzioa emanez bereziki hainbat hizkuntzetan gaur idazten ari denari. Ez dakit nongo apaizak hemezortzigarren mendean idatzitako hausnarketa biblikoak ez zaizkit interesatzen. Goza dezaket bere hizkuntza, bere hitzak eta sintaxia erabiltzeko modua, baina gure mundua ez da hori, gure literatura ulertzeko moduak ez du zeri-kusirik propaganda erligiosoarekin.

**—Hizkuntza gutxitu batez idaztea, gutxiengo baten gutxiengo baten parte izatea, irakurria izatea. Nortzuk dira zuen irakurleak?, nortzuk nahiko zenituzke izatea?**

yo siento es lo siguiente: en la literatura en lengua vasca casi todo está sin hacer y por hacer; a consecuencia de eso debemos escribir con la mirada puesta en el presente y en el futuro, poniendo la lupa especialmente en lo que se está escribiendo actualmente en ciertos idiomas. No me interesan las reflexiones bíblicas escritas en el siglo dieciocho por sacerdotes de no sé dónde. Puedo disfrutar de su lenguaje, de su modo de utilizar las palabras y la sintaxis, pero nuestro mundo no es ese, la manera de entender nuestra literatura no tiene nada que ver con la propaganda religiosa.

**—Escribir en lenguas minoritarias, ser parte de una minoría dentro de una minoría, ser leído. ¿Quiénes son tus lectores?, ¿quiénes querrías que fueran?**

—Al vivir en una zona vascófona sé bien quiénes no son lectores de poesía en *euskara*: los *euskaldunes* que no han aprendido el *euskara* por vías académicas; esto es, aquellos que tienen su modo de vida unido a los trabajos tradicionales (a la ganadería, a la agricultura). Estos, aun siendo hablantes del más fino y bonito *euskara*, no están alfabetizados en nuestro idioma. Los más capacitados para gozar de los versos orales no lo están para consumir cultura escrita en *euskara*. Son las paradojas de los idiomas sin normalizar.

Creo que nuestros lectores se localizan en los entornos urbanos, que son bastante jóvenes; estudiantes, profesores...

166

Como es sabido, el colectivo de lectores de poesía es pequeño, comparándolo con los de otros géneros, sobre todo con el de la novela. También es fiel, el lector de poesía sigue las novedades y los autores que le gustan. Además, yo suelo decir que los mejores lectores son los de la poesía, los más creativos, los que más disfrutan de la literatura...

**—Dentro de los círculos *euskaltzales* a veces se comenta con orgullo que, en proporción al número de hablantes, el *euskara* cuenta con un alto ratio de escritores publicados, pero que sin embargo, estos son muy poco seguidos con ciertas excepciones por los lectores *euskaldunes*. Asimismo, también algunas personas son de la opinión de que, quizá motivados por la supuesta debilidad del sector, la crítica no ejerce como tal, sino como meros altavoces publicitarios de las novedades. ¿Qué te parecen estas afirmaciones?**

—Es cierto que tenemos abundantes escritores y libros publicados, y esta cantidad es si cabe todavía más estimable si reparamos en lo reducido que es el colectivo de lectores en lengua vasca. Pero la moneda tiene también su otra cara; hay que notar que las tiradas son cada día más reducidas. Es fenomenal, desde luego, que haya cada vez más escritores; para corroborar eso basta con fijarse en cuántas personas adjuntan la palabra “escritor(a)” bajo la firma de sus artículos en periódicos y revistas. Pero si los lectores potenciales no aumentan, lo tenemos crudo.

Lo de la crítica exigiría un largo debate. A mi modo de ver su función es imprescindible; yo mismo a la hora de elegir mis lecturas acudo a las opiniones de algunos críticos concretos. Por desgracia, debido también a nuestra debilidad, no creo que exista algo denominado *euskal kritika*. Están los escritores, profesores y amantes de la literatura que publican críticas, cada cual con sus métodos y criterios.

—Euskaldun eremu batean bizitzeagatik ongi dakit nor ez diren euskal poesiaren irakurleak: hemengo euskaldun zaharrak; hau da, euren bizimodua lan tradizionalekin (abeltzaintzarekin, nekazaritzarekin), lotua dutenak. Hauek, nahiz euskara finenaren eta politenaren hiztunak izan, ez daude alfabetizatuak gure hizkuntzan. Ahozko bertsoak dastatzeko gaitasun handiena dutenek ezin dezakete idatzizko euskal kultura kontsumitu. Normalizatu gabeko hizkuntzen paradojak dira.

Uste dut gure irakurleak inguru urbanoetan daudela, gazte samarrak direla; ikasleak, irakasleak...

Jakina denez, poesiaren irakurlegoa txikiena da, bertze genero batzuekin alderatuta, eleberriarekin batez ere. Fidela ere bada, poesiaren irakurleak nobedadeak eta bere gustuko idazleak jarraitzen ditu. Gaineraz, nik erraten ohi dut poesiak irakurle onenak dituela, sortzaileek, literatura gehien gozatzen dutenak...

**—Giro euskaltzaleetan noizbait esan izan da, harrotasun puntu batekin, euskal hiztunen kopurua zenbatekoa den kontuan hartuta, euskarak oso ratio onak agertzen dituela idazle argitaratuaren kopuruari dagokionean; hala eta guztiz ere, esan ere egiten da oso jarraitzaile gutxi dituztela euskal irakurleen artean —salbuespenak albuespen—. Orobat, zenbaitetan ere aditu izan da —behar bada sektorearen ustezko ahuldadeak bultzaturik—, kritikak ez duela jarduten bete-betean, baizik eta nobedadeei publizitatea egiteari soilik ekiten diola. Ados zaude halako baieztapenekin?**

—Egia da idazle eta liburu ugari ditugula argitaraturik, eta kopuru handi hau are estimagarriagoa dela euskaldun irakurlegoa zein mugatua den kontuan hartuta. Baina txanponak badu bere ifrentzua; ohartu behar da argitalpenen kopuruak gero eta murriztagoak direla. Bikaina da, noski, gero eta idazle gehiago egotea; hori egiaztatzeke nahikoa da egunkarrietan edota aldizkarrietan zenbatek jartzen duten artikulu baten sinaduran “idazle” hitza izenaren azpian. Baina irakurlego potentzialak gora egiten ez badu, jai dugu.

Kritikarenak eztabaida luzea beharko luke. Nire ustez bere funtzioa ezinbertzekoa da; nik neuk irakurketak aukeratzeko tenorean kritikari zehatz batzuen iritziak erabiltzen ditut. Tamalez, hemen ere gure ahuldadea dela-eta, ez dut uste “euskal kritika” izena daukan zerbaite existitzen denik. Badira kritikak argitaratzen dituzten idazleak, irakasleak eta literaturzaileak, nork bere metodoak eta kriterioak erabiltzen dituztenak.

Normal izan daiteke kritikari bat idazle ezagunenez gehiago jardutea, baina orokorrean ez dut ikusten argitaletxeekiko menpetasunetik. Agian bai, nagusitzen den amateurismoagatik, adiskidetasunak sarri baldintzatzen du liburu baten aukeraketa, eta baita liburu horren kritikaren emaitza ere.

**—Zure lanak espainierara itzultzea, interesatzen zaizu? Zaila da lortzea? Egiten denean, funtzionatzen du? Itzulpengintzaz gain, badira beste etengailu batzuk zuen sabaia argizatzen ahal dutenak ala ez. Hortxe ditugu liburu-dendak, argitaletxe handiak zein txikiak, sariak, azokak, unibertsitatea..., honetatik guztietatik hurbil ala urruti zabiltzate?, eroso ala deseroso?**

Puede ser normal que un crítico abunde más sobre los escritores con más renombre, pero por lo general no observo dependencia hacia las editoriales. A lo mejor sí que, debido al *amateurismo* imperante, a menudo la amistad condiciona la elección de un libro, y también el resultado de la crítica del mismo.

**—La traducción al español de tus obras, ¿te interesa? ¿es difícil conseguirlo? Cuando se realiza ¿funciona? Además de la traducción, otros interruptores pueden alumbrar o no vuestra ganbara, librerías, las editoriales grandes y pequeñas, los premios, las ferias, la universidad... ¿Cómo de cerca estás de todo esto?, ¿cómo de cómodo?**

—El traducir las obras al castellano me parece bien, al fin y al cabo todo escritor desea que su trabajo sea conocido por el mayor número posible de lectores. Hemos dado algún que otro recital en los dos idiomas, en mi caso con poemas traducidos por mí mismo, y el acto me ha parecido interesante, porque los *euskaldunes* tenían la opción de escuchar los poemas en ambos idiomas, y quienes no saben *euskara* además de entender la versión en castellano, “escuchaban” el sonido de la de *euskara*. Es diferente lo de publicar la traducción. Cuando se ha hecho en una editorial modesta, la mayoría de las veces el libro ha pasado inadvertido en el mar de novedades en castellano. Cuando lo ha hecho alguna gran editorial de Madrid, acompañado de una campaña promocional y de una crítica favorable publicada en sus medios, se ha conseguido un mayor eco. De todos modos, y respecto al género que yo trabajo, la poesía *euskaldun* es desconocida en castellano, a excepción de contados poemas recogidos en alguna antología.

168

Ignoro si el motivo será la personalidad o la edad, o por vivir lejos de las ciudades, o porque me he adaptado al tranquilo modo de vida sin coche, pero me resulta incómodo aparecer en los actos públicos como “poeta”. En mi caso las relaciones con las editoriales son puntuales; se limitan a las temporadas en las que voy a publicar algo. Ciertos actos son ineludibles, por supuesto: las presentaciones de libros, algún recital, las esporádicas entrevistas, las charlas, las entregas de premios... Todos ellos siempre brindan la oportunidad de entrar en contacto con la gente; la mayor parte de las veces algo aportan, aunque no me gusta adquirir compromisos.

La de los certámenes literarios es una vía que yo he utilizado. Este tema también da lugar a debates interminables, pero mientras esté ahí, opino que es lícito utilizar este camino. Antes de empezar a publicar, no tenía relaciones en ningún círculo literario; recibir un premio fue el modo de poder ser publicado, además del impulso que eso proporciona. La función de los premios en un sistema literario siempre será discutible, y la discusión sincera suele ser saludable; eso sí, por mi parte puedo decir alto y claro que los premios que me han otorgado han sido totalmente limpios en cuanto a lo que se refiere al procedimiento. Como veis, se los han concedido a alguien que no trabaja las “relaciones”...

**—Otra fuente de iluminación posible: los medios de comunicación, ¿se acuerdan de vosotros?**

—Sí, de cuando en cuando publican algo, alguna entrevista o algún que otro artículo, principalmente cuando hay una noticia, por ejemplo la publicación de un libro o una charla. Eso



—Lanak gaztelaniara itzultzea ongi iruditzen zait, finean edozein idazlek nahi du bere ekoizpena ahalik eta irakurle gehienek ezagut dezala. Errezitaldiren bat eman dugu bi hizkuntzetan, nire kasuan nik neuk itzulitako poema batzuekin, eta ekitaldi interesgarria iruditu zait, zeren euskaldunek bazuten poemak bi hizkuntzetan entzuteko aukera, eta erdaldunek gaztelaniazko bertsioak ulertzeaz gain, euskarazkoen soinua “entzuten” zuten. Itzulpena argitaratzeara ezberdin da. Argitaletxe txiki batean egin izan denean, gehienetan liburua ohartu gabe pasatzen da gaztelaniazko nobedadeen itsasoan. Madrileko argitaletxe haundiren batek egin duenean, promozio kanpaina batekin lagunduta eta bere medioetan kritika mesedegarririk argitaratuta, oihartzun zabalagoa lortu izan da. Dena den, eta nik lantzen dudana generoa dagokionez, euskal poesia ezezaguna da gaztelaniaz, antologiaren batean argitaratutako poema banaka batzuk izan ezik.

Ez dakit izaera ala adin kontua ote den, edo hirietatik urrun bizitzeagatik, edo kotxerik gabeko bizimodu lasaiari egokitu naizelako, baina ekitaldi publikoetan “poeta” gisa agertzea deseroso egiten zait. Argitaletxeekiko harremanak unean-unekoak dira nire kasuan; zerbait argitaratu behar dudana garaira murrizten dira. Zenbait ekitaldi saihestezinak dira, noski: liburuaren aurkezpenak, errezitaldiren bat, noizbehinkako elkarrizketak, solasaldiak, sari-banaketak... Hauek denak beti ekartzen dute jendearekin harremanean sartzeko aukera; gehienetan aportatzen dute zerbait, nahiz eta konpromisoak hartzea ez zaidan gustatzen.

Nik erabili dudana bide bat literatur lehiaketena izan da. Gai honek ere eztabaida amaitezinentzako lekuri ematen du, baina hor dagoen bitartean, bide hau erabiltzeari zilegi deritzot. Argitaratzen hasi aitzin, ez nuen harremanik inongo literatur zirkulotan; sari bat lortzea argitaratu ahal izateko modua izan zen, horrek ematen duen bultzadaz gain. Sariaren funtzioa literatur sistema batean beti izanena da eztabaidagarria, eta eztabaida egia osasungarria izaten ohi da; hori bai, nire aldetik argi erran dezaket niri eman dizkidaten sariak guztiz garbiak izan dira prozedurari dagokionez. Ikusten duzue-nez, "harremanak" lantzen ez dituen norbaiti eman dizkiote...

169

**—Balizko beste argi-iturri bat: komunikabideak, ba al dute zuen berririk?**

—Bai, noizean behin zerbait argitaratzen dute, elkarrizketaren edo artikuluren bat, batez ere albisteren bat dagoenean, adibidez liburu baten argitalpena edo mintzaldi bat. Hori Gipuzkoako edo Bizkaiako egunkariei dagokienez. Lurralde horietako egunkari erdaldunek ere zertxobait ekartzen dute. Nafarroako bi egunkariak euskal literaturari ematen dioten atentzioaz, hobe deus ez erratea. Baina tira, futbolari izateko gaitasunik ez geneukalako aukeratu genuen idazle euskaldunak izatea. Irrati euskaldunetan badira espazio banaka batzuk literaturaz arduratzen direnak. Zertxobait ere euskal telebista, “Sautrela” saioa irauten duen bitartean.

Bizi naizen eskualdearen komunikabideetan (Xaloe irratian eta telebistan, Ttipi-ttapa aldizkarian) agertzen dira ere gure ibilbideen berri. Hauekin gaineraz noizbehinkako kolaborazioak gustora eta eroso egiten ditut.

**—Biblioteka publikoena ostatu ona iruditzen zaizu? Biblioteken funtsetan duzun presentziaren gainean zaude —kasu, biblioteka esaten dugunean mota guztietako liburutegiez ari garelako: publikoek, unibertsitateetakoek—?, Beraiengandiko sostengua sentitzen duzue?**

en lo que respecta a periódicos de Guipúzcoa o Vizcaya. También los diarios de esos territorios escritos en castellano suelen recoger algo del tema. De la atención que profesan los dos diarios navarros hacia la literatura en *euskara*, mejor no hablamos. Pero bueno, ya que no teníamos dotes para ser futbolistas elegimos ser escritores en lengua vasca. En las radios que emiten en *euskara* tienen cabida algún que otro espacio que se preocupa por la literatura. También un poquito Euskal Telebista, mientras aguante el programa “Sautrela”.

En los medios de comunicación de la zona donde vivo (en la radio y televisión *Xaloa*, en la revista *Ttipi-ttapa*) también suelen hacerse eco de nuestras andanzas. Además con estos suelo colaborar esporádicamente muy a gusto y cómodo.

**—¿Consideras las bibliotecas públicas un buen hospedaje? ¿conoces tu presencia en la colección de las bibliotecas —públicas, universitarias—?, ¿te ves respaldado en ese sentido? ¿Temes que los recortes en las partidas para adquisiciones de libros afecten a la literatura *euskaldun*?**

—Las bibliotecas públicas me parecen un buen hospedaje para mis libros. En la medida en que el fin de cualquier escritor de poesía en *euskara* es ser leído, y en ningún modo percibir un beneficio económico, es una alegría ver nuestros libros en las bibliotecas. Examinados algunos catálogos que son consultables a través de internet, estimo aceptable la presencia de mis libros en las bibliotecas. Siempre nos gustaría estar en toda la geografía de Navarra, pero no somos Ken Follett...

**170** Por otro lado, en una situación de crisis económica, las primeras partidas económicas que suelen ser reducidas son las que se asignan al impulso de la cultura. Más aún, cómo no, el dinero que se concede para la promoción de la cultura vasca. Y si antes ya era insuficiente la compra de libros por parte de las instituciones públicas, imagina cómo ha quedado ahora. Esa realidad la puedo afirmar en la biblioteca de mi pueblo día a día. No llegaría a decir que será perjudicial; ya que los escritores *euskaldunes* navarros ya estamos vacunados contra la mayoría de males...

**—¿Qué te gusta leer? Danos cinco títulos que consideres imprescindibles.**

—Leo de todo, tanto en *euskara* como en castellano: poesía, novela, narración corta, ensayo... Según el ánimo o siguiendo alguna recomendación especial, pero sin fijarme en las modas o en los *best seller*. En poesía recomendaría los libros de Xabier Lete y de Fernando Luis Chivite, en *euskara* y en castellano respectivamente; en novela a Ramon Saizarbitoria, Vila-Matas, Coetzee. Dos novelistas navarros: Pablo Antoñana, Miguel Sánchez-Ostiz.

**Liburutegiak hornitzeko diru-partiden murrizketek direla eta, beldur zara euskarazko literaturaren kalte izanen dela?**

—Liburutegi publikoena ostatu onena iruditzen zait nire liburuentzat. Euskarazko poesia idazten duen edonorentzat helburua irakurria izatea den neurrian, eta inolaz ere etekin ekonomikorik ateratzea, gure liburuak biblioteketan ikustea poztekoa da. Interneten bidez kontsultagarri diren katalogo batzuk ikusita, balekotzat jotzen dut nire liburuen presentzia liburutegietan. Beti nahiko genuke Nafarroako geografia osoan egotea, baina ez gara Ken Follet...

Bertzalde, krisi ekonomikoaren egoera batean, murrizten diren lehenengo diru-partidak kultura sustatzeko ematen direnak dira. Are gehiago, nola ez, euskal kultura laguntzeko ematen den dirua. Eta lehen eskasa bazen euskal liburuen erosketarako erakunde publikoen partetik, pentsa orain nola geratu den. Errealitate hori egunero baieztatu dezaket nire herriko liburutegian. Kaltegarria izanen dela errateraino ez nintzateke helduko; nafar idazle euskaldunak gaitz gehienek kontra txertatuta baikaude...

**—Zer duzu gogoko irakurtzeko? Eman iezazkiguzu behar-beharrezko bost izenburu.**

—Denetarik irakurtzen dut, bai euskaraz bai erdaraz: poesia, eleberria, narrazio laburra, saioa... Gogoaren arabera edo gomendio bereziren bat segituz, baina modei edo best-sellerrei erreparatu gabe. Poesian Xabier Leteren eta Fernando Luis Chiviteren liburuak gomendatuko nituzke, euskaraz eta erdaraz hurrenez hurren; nobelan Ramon Saizarbitoria, Vila-Matas, Coetzee. Bi nafar eleberrigile: Pablo Antoñana, Miguel Sanchez-Ostiz.